

### **ERDI-AROKO EUSKAL ERRI-IZENEN IDAZKERA**

Asitako ariari jarraituaz, aztertu ditzagun gaur erdi-aroko beste dokumentu batzuk gure uri eta errien izenak garai artan nola idazten ziran jakiteko.

- Aurreneko dokumentua amairugarren mendeko bat izango da; 1291'ko azaroaren 24'ean idatzia; Araba'ko lege-egilleena.

Gauza jakina da Araba'ko lege-egilleak Arriaga'n biltzen zira eta Batzar ari «Kofradia» esaten zitzaiola orduan: «Arriaga'ko Kofradia». Larruki ontan, «Conffadria» idazten dute Arriaga'ko lege-egilleek. Egia esateko batzuetan idazten dute orrela: «Confadria», «Conffadres»; beste batzuetan «Coffadria» eta «Cofrades» «F» bakarraz eta «R» bere gaurko tokian ezarriaz idazten bait dute itz ori. Garai artako ortografiaren zalantzen adigarri!

Baditugu larruki ontan zalantza oien adigarri geiago ere. Ala, «ay», «ayamos», «ayan», beti «H»rik gabe ematen digute. Baita «onra» ere. «Albardero» «V»z dago, eta «Bolver» «B» batekin.

Lumalariaren oartugabeko utsak izan daitezkeala? Ez. «Haber» aditzaren erak eta «Cofradia» itza bein baiño geiagotan agertzen bait dira, eta azkeneko au, bein baiño geiagotan ezberdinki idatzia. Era berean «Enemiztades» (bi aldiz «Z»z), eta «Ser» aditzaren itzak: «Ssomos», «Sseyendo», «Sseredes», «Sedes», «Seyen-

do»... batzuetan bi «SS»r.k.m eta beste batzuetan «S» batekin.

(Arabarrek beren Agintarien Bazkunari «Kofradi» deitze orrek badu eskierki euskaldunen kristautasunarekin zer ikusirik. Oroi, gainera, Araba'ko Batzar Nagusiaren billerak Estibaliz'ko Andre Mari zuala lendakari, eta Aren inguruan biltzen zirala Araba'ko Agintariak, eta Aren begien aurrean emanak izaten ziralà, baliozkoak zitezen, Araba'ko legeak. Kofradi asko zan antziñatean Euskalerri osoan; eta Arriaga'ko ura danetan ospetsuena zalantzarik gabe. Baiña Kofradietaz ni ez nindeke mintza, ez bait dut ortaz ezer aundirik ezagutzen. Gaurko Euskalerrian, Kofradiei-buruz geien dakian gizona Olazar'tar Martin izango dugu noski. Atsegin aundia emango liguke Jaun orrek bere azterketalana jarraituko balu. Ala ta guztiz, ezin izango bait du Martin'ek azterketa-lan ori berak bakarrik agortu, geldituko da zer billaturik alor ortan doktoradutzarako tesi-egillentzat ere).

Oitura zuten lez, era aunditsuan ematen diote asiera, Arriaga'ko Jaunek, dokumentu oneri: «...nos los Conffadres de Alava. Seyendo yuntados en el Campo de Arriaga á yunta pregonada assi como é costumbre es. Et sseyendo y don johan alfonso de ffaro sseñor de la Conffadria por nuestro sseñor el Rey don Sancho».

Santxo ori IV Santxo Gaztela'ko Erregea da. X Albontsa Jakintsuaren semea. Erregearen Ordezkarì, Araba'ko laterri iarean, Aro'ko Jon Albontsa zan orduan. Larrukiak darabiltzkian itzek errez atzipetu dezakete gaur-eguneko edozein irakurle: «Et sseyendo y don johan alfonso de ffaro sseñor de la Conffadria por nuestro sseñor el Rey». Ots, orde! Itzek ez zuten antziña artan gaur duten zentzurik. Badirudi, larrukiaren izkera gaurko eran ulertzen ba'dogu, Jon Albontsa ori, Araba'ko Jaun da Jabe zala, eta berak zuzentzen zuala guztia Arriaga'ko Batzarrean. Ez zan orrela.

Jon Albontsa, Erregearen Ordezkarì utsa zan. «Por nuestro sseñor el Rey, sseñor de la Conffadria». Baiña, «SSEÑOR» ori omen utsezko tituloa besterik ez da. Erregearen Ordezkarìak

Batzarrean zuan «Jauntza, Erregearena bezela, omen utsezkoa zan. Orregaitik, larrukiak argi erakusten digunez, Arriaga'ko Batzar ontan ere ez zuan Ordezkariek ezer egin. «Conffadreak» izan ziran, «Conffadreak» bakarrik larrukiaren mami dan lege zorrotza eman zutenak; Gazteiz-inguruko gazkille oro eriotzara galtzen zuan legea! Gazkille oiek, -Aide Nagusiak seguruaski-epaitzeko almena Gazteiz'ko Udalari eman zioten: «Damos poder avos el conceio (de bitoria) ... que le podades e matar quier por justicia quier por otra muerte qual vos quisieredes ó por bien tovieredes». Larri zeuden noski gauzak Arriaga'ko jaunek Gazteiz'ko udalari, epaiketarik gabe ere, gaizkille-iltzeko almena ematen ziotenean.

Aurrera jarraitu baiño len oartxo bat. Ikusi al duzu nola, larruki ontan, erderazko «Y» lokitz edo «kopolatiba» adierazteko iru era nola darabilzkian lumalariak?: «ET», «Y» eta «E» («E» au «I» agoskatzen zuten).

Ikus orain larruki onek ematen dizkigun erri-izenak:

|         |          |                |
|---------|----------|----------------|
| ALAVA   | HARRIAGA | HARRIETA       |
| BITORIA | ADURZA   | HARANA         |
| YLARAZA | HALI     | MENDOZA        |
| GUEVARA | OÑAT     | SALCEDO        |
| LEGARIA | OYPA     | SANT YLLEFONSO |

Lau dira «H»z idatzitako izenak:

HARRIAGA.- Len ere azaldu zaigu («Karmel» 1983-1) Arriaga, larruki bat ber-berean, bein «H»z eta beste bein «H»rik gabe idatzia: HARRIAGA eta ARRIAGA. (1258'koa zan larruki ura).

Orixen bera ikusi dezakegu gaur aztertzen dugun 1291'ko beste larruki ontan ere: ARRIAGA, «H»rik gabe bein («yuntados en el Campo de Arriaga») eta «H» ta guzti beste bein («e de parte de harriaga fasta la fuente que es cabo el palombar que fue de don juan martinez el mayor») JOAN itza ere batzuetan «H»rik gabe eta besteetan, geienetan, «H»z idatzia agiri da larruki ontan: JOHAN.

**HARRIETA.**– Naasketa bera izen oni buruz: «H»rik gabe eta «H» ta guzti jaun beraren abizen lez: «johan gonzalez darrieta» eta «johan gonzalez de Harrieta».

**HARANA.**– Gaur, Gazteiz'ko auzo bat da. Bada Araba'n izen ortako aran eder luze bat ere, eta aran orreri dagokio larruki ontako izena. «ARA»z asten diran izenak maiz agertzen dira idazki zaarretan «H»z: «HARHAZUA» Donemillan'go burnibarren zerrendan, eta «HARARIHIN» larruki artan bertan. Baiña maiz agertzen dira «H»rik gabe ere: «ARANDIA» (1075'an). «ARANGIZ» aipatutako Donemillan'go larrukian eta 758'ko idazti zar-zar batean.

**HALI.**– Gaurko Ali; Gazteizti'k iru kilometrora dagoan errixka. Itz gutxitan ibilliko da «H»a erri onen izenean baiño era txoroagoan: (Ikus Karmel 1984; 1-2) «HEARI», «EHARI», eta «HALI». Eta baita ALI ere beste dokumentu batzuetan, Naparroa'ko «ALLI» bezela; «H»rik gabe.

Gutxitan ikusten da «H» a «AL» izkiez asten diran itzetan. 1094'ko idazti batek, Araba'ko Errioxa'n, Biñaspren deritzan erriaren alboan HALAZAR bat aurkezten digu. Baiña idazti ortan bertan, «ALHANIELLA» ikusiko duzu, «H»a «AL» izkien aurrean ez baiña atzean ipiñiaz.

«AL» izkien bikotea maiz agertzen da euskerazko izenetan: «ALBENIZ», «ALBONIGA», ALMANDOZ, «ALBAINA», «ALDAMA», «ALKORTA». Zer esan nai ote du «AL» orrek? Badira iritziak ugari gai ontaz, baiña eskiertasun gutxikoak. «AL» batzuetan beintzat «AR»en aldakuntza da. Ala, 1408'ko idazti batean, Araba eta Gipuzkoa-arteko mugetan dagoan ALBINA, Albina ez baiña «ARBINA» dakusgu lau edo bost aldiz idatzia. Gero, XVIII mendeko lumalari batek, tinta ezberdiñaz, «r» ori luzatuaz «l» biurtu zigun. Argi-argi ikusi daiteke izkiaren aldakuntza trakets ori.

**FFARO.**– Gaur erdeldunek «H»z idazten duten Errioxa'ko ARO duzu. Abizen lez dator gure idazti ontan: «johan alfonso de ffaro». Euskalduna zan eskierki Erregeak Araba'rako izendatu

zuan Ordezkarri au; mende artan, eta baita geroago ere Errioxa Goikoan euskera bait zan bertakotarren izkuntza.

Zoritzarrez, Arriaga'ko Landetan euskeraz egindako Batzar ura, erderaz idatzi zuten gero, larrukira aldatzerakoan. Baiña ori Euskalerrri guztietako Batzarren obena dugu!

DOYPA.- Gazteiz'tik zortziren bat kilometrora zegoan errixka; gaur ezabatua. Donemillian'go Burni-barren idazkian, «DOIPA».

BITORIA.- Ia beti idazti onek «B»rekin ematen digu. Sei aldiz! ain zuzen; eta bein bakarrik «V»rekin: VITORIA.

ADURZA.- «H»rik gabe dokumentu askotan; gure idazki ontan bezela. Donemillian'goan ordea «ADURZAHIA» dator. Gaur ADURZA Gazteiz'ko auzoa da. Eta Donemilliango «dekanok» oartu zigun «H» ori, «G» bat besterik ez duzu: «ADURZAHIA» = «ADURZAGA».

OÑAT.- Gipuzkoa'ko Oñate dugu; azkeneko «E»rik gabe. Beste Erri batzuen izenetan ere ikusi aal izan dugu azken «E» galtze ori: «LASART» (27-IV-59; VIII mendea!) Donemillian'goan LASSARTE dago. «URART», VIII mendeko dokumentu ortan bertan.

Eta beste larruki batera igaro aurretik, albiste bitxi bat: Gauza ezaguna da gaur-egun Gazteiz'en azoka ostegunetan egiten dala. Ba, aztertzen ari geran idazkiak dioskunez, ostegunetan egiten zan XIII mendean ere. Eta lecnago ere, egun ortan egiten zala diosku: «empero al dia del yueves que ayamos en el mercado de bitoria nuestra yunta é nuestros desafiamientos é para dar derech é para recibir derech en el mercado asi como la obicemos fasta aqui». ilraunkorrak dirala Euskalerrrian oiturak!

Bigarren larrukia 1087'koa dugu. Egunaren eta illaren xetasunik ez dakar. Andre batek, Elo Tellez'ek, Kukulla'ko Lckaidetxcari egiten dizkion emaitzak dira, larrukiaren mami. Araba'ko Gobiaran'goa edo an inguruko, gaur Burgos diran, lurralde-takoa zan Elo Andrea. Ala dirudi beintzat.

Larrukian, lekuko lez, izendatzen dutenen artean, «Alfonsus rex. in Toletu et Burgis» dator aurrena, Elo oso andre ospetsua zalaren adigarri. Albontsa VI'a da Albontsa au (1072-1109), IV Santxo naparra bere anaiek Len aitzean illa izan zanean, Naparroa'ri Errioxa kendu ziona.

Erregearen alboan badator larruki ontan beste lekuko bat. «Didaco Albariz con (firmat)» Didaka Albarena ori, Oka lurraldeko Jauna zan, eta Tiklo edo Tekla, Bizkai'ko bigarren Jaun Lupa Enekorenaren emaztearen aita. Ain zuzen Oka'ko Jaun orrek, lagundu zion Gaztela'ko Erregeari Errioxa arrapatzen, eta baita suin zuan Bizkai'ko Jaunak ere. Ori dala-ta egin zuan erregeak Bizkai'ko eta Araba'ko eta Gipuzkoa'ko Jaun gure Lope Ennekones, edo Lupa Enekorena.

Larruki ontan dakusguzan erri-izenak auxek ditugu:

|         |         |          |
|---------|---------|----------|
| ZABALLA | SEMELLO | VOZO     |
| HARRATE | KESKO   | GRUENDES |
| TOLETO  | BURGIS  | NAIARA   |

Erri auk danak gaur es daude Euskalerrian, baiña orduan Euskalerra ziran noski.

VOZO.- (Gaur Bozó) eta KESKO, (orrela, bi «K»rekin), gaur Quesco, gure lan ontarako garrantzirik gabeko itzak dira.

SEMELHIO.- Gaur Jemello da, bear bada Bizkaiko Jemlein'ekin aidetasuna badun itza. Barruan daraman «H» orrek ez du arreta geiegirik merezi erdiaroko euskal izenetan agertzen dan «L» osteko «H»rik geienak bezela, «L» adierazteko bait dago: «SEMELHIO» = «SEMELLO».

HARRATE.- Arrate au non zegoan jakitea ez da erreza. Euskalerra guztian dago izen au zabaldurik. «H»z idatzia dager-tzaigu emen, baiña geienetan «H»rik gabe ikusiko duzu. Ala, Arrate'ko Amari buruz 1498'ko larruki batean. Gipuzkoa'n eza-guna da, bertako Amabirjiñagaitik, ARRATE, Eibar'ko auzoa: 38 baserri, XVII mendeko eliza, eta Andre Mari'ren XIII'engo irudia. Baiña badira Euzkadi osoan beste Arrate asko. Araba'n

mendi-kate batek ARRATO du izena. ARRATE, Naparroa n mendi bat da Aralar'en, eta landa bat Areso'n. Araba'n, landa bat Subijana'n eta beste landa bat Birgala'n. Bizkaia'n, mendi bat eta osin bat Berango'n. Gipuzkoa'n, baserri bat Elgueta'n; eta mendi-kate bat Burgos'ko Menia aranean.

GRUENDES.- Gaur, GURENDES, Araba'n Gobia arane-ko erri bat da. Erri zarra, 1038 eta 1054'ko bi larrukietan bai bait dator. Beste batzuen iritziz, Gurendes, Bizkai'ko GORRONGO monasterioa izan daiteke. Ez da errez ala dan edo ez jakitea.

ZABALLA.- Latinezko idazkeraren araura bi «L»z idatzia, ZABALA degu, non egon leikean ez dakidan erria.

Burgos'koak izan, edo Araba'koak, ala Bizkai'koak, erri-izen oiek danak euskaldunak dira naiz batzuk Bozo, Kesko, antza-aldaturik agertu. BOZO, euskal abizena Araba'n, bere armarri ta guzti. «BOZO», «BOZU», etimologilari batzuentzat, «POTZU»ren aldakuntza dugu. Bai ote?

Ekonomiari buruz, esan dezagun, beste orduango idatzi guztietan bezela, gure ontan ere garrantzi aundia ematen zaiela errotei eta sagastiei; eta baita mastiei ere : «Illas casas de molino» «In illo monasterio de Zaballa...» «Pertinentia in molinos, in manzanares, in omnia que ad me pertinet». «Illa vinea de Harra-te», «Illo monasterio de Gruendes cum... vineis, molendinis...» «Monasterio de S. Juliani de Kesko cum... vineis...»

Gruendes Bizkai'ko Gorrondo baldin ba'da, eta Kesko ere Bizkaia'n ba'zegoan, orra or, Bizkai'ko mastiak XI mendeko lar-ruki batean aipatuak.

Gaur irugarren aztertuko dugun larrukia oso dokumentu zelebrea da. Antziñako edesti-idazleek maiz erabillia, baiña baliorik gabea, apokrifoa bait da. Apokrifoa, ots, berak esaten duan denborakoa ez dana; eta berak esaten duanak idatzia ere ez dana.

Berak X mendekoa dala diosku: 934'koa. Oso-oso zarra beraz; X mendearen asierakoa; berak dioskunez, «Stephanus»

izan zan idazlea eta Gaztela'ko Konte iare zan Perdinanda Gontzalena'ren aginduz asi zan idazten. Alakoa du, larruki onek, ederre eta itzaunditsuz bere asiera:

«Sub nómine Patris, necnon et ejus prolis, pariterque S. Flaminis in uníus potentia deitatis, incipit charta devotionis, quam ego Comes Ferdinando Gundisalviz Universae Castellae Principatun tenens...»:

«Jainkotasunezko almenean bat diran Aitaren, Ark sortua-ren, eta Ats Deunaren izenaren babespean, damaiot asiera eraspenezko idazti oni nik, Gaztela osoan Aginte Nagusia dudán Gontzal'en Perdinanda onek».

Idazti apokrifó onen elburua bikoitza da: Gaztela gorapaitzea, eta, batez ere, Kukulla'ko Donemillian'en Lekaidetxea aundi egitea.

Apokrifoa dalarik, ez du edestiarentzat baliorik. Bai ordea guretzat; zaarra dalako, euskal erri batzuen izen zaarrak nola zeuden idatziak jakiteko balio bait digu.

Noiz izan zan Idatzia? Nere ustez XII mendean, orduangoa bait dirudi bere latíñak. Nork idatzi ote zuan? Kukulla'ko lekaideren batek, bearbada. Guztia berak asmatu-ta? Ez, naitanaiez. Agian, erriaren altzoan bi mendeen luzaroan sortutako ipuiak jaso besterik ez bait zuan berak egin.

Damaizkigun errietatik auek bakarrik dira, nere ustez, euskalerrikoak.

|            |          |          |
|------------|----------|----------|
| MAIA OPIIA | OUVIRNIA | ULBERE   |
| LACO       | TRIVINIO | BORUEVA  |
| ARASCUM    | OCA      | OGGA     |
| OBER       | CARRANZA | BARDELES |
| GARRANZO   | LANTARON | CELORIGO |
| VILLIBIOZ  | BURDEN   | BERROZIA |
| MARAGNON   | ARRONIZ  | MIJARIN  |
| PENA ACHA  | ORONE    | HERCE    |
| ARNETO     | ORDUNIA  | KELE     |



Beste izen asko eta asko dakarzki larruki onek. Gaur euskaldun ez diran inguruetakoko erri-izenak. Baiña, ez bait dirudite jatorriz euskaldunak, ez ditugu gaur aztertuko. Bear ba'da beste egunen batean egingo dugu azterketa-ori, izen oiek euskal kutsurik izan dezaketen ikusteko.

Gaztela goratzeko idatzia izan zalarik, Gaztelako ez eze, Nafarroa'ren Egoaldeko, Errioxa'ko, eta Bizkai-Araba-Gipuzko'ko Jaun bezela agertzen digu Gaztelako Kontea, gure larruki aprokribo onek. Bi izen bakarrik ematen dizkigu «H» idatziak: HERCE eta GALHARRAGA.

GALHARRAGA: «L» izkiaren osteko «H» orrek ez zaitu noski kezkatuko, len ere esan dizudala uste bait dut «L»ren albo-ko «H» ori erdiaroko idazkeran «L» bat besterik ez dala; gure «LL»ren soiñua adierazteko ezarria. Orrela egiten dute oraindik portugaldarrak: «Cavalho»; «batalha», gaztelerazko «caballo» eta «batalla», portugaleraz idazteko.

Larruki ontan GALHARRAGA, ibai bat da; txit garrantzi aundiko ibaia, berak egiten bait zuan sarkalderuntz Baizkai'ren muga: «De rivo de Galharraga usque ad flumen de Deva, id est tota Vizcaya»: «Gallarraga ibaitik, Deba ibaira; ots Bizkai dana».

Larruki ontan bakarrik aurki dezakezu GALHARRAGA ibaiaren izena, ez bait dut beste inoiz inon ere aipatu danik uste. Izen ortako erreka ori non zegoan inork ez daki. Llorente'k Ibaizabal zala uste izan zuan, baiña larrukiak Bizkai'ren sarkaldeko muga lez ipinten dualako bakarrik. Beste arrazoirik gabe. Gaiñera, Llorente'k, Nerbion'eri deitzen dio Ibaizabal.

Saia gaitezen Galharraga non zegoan billatzen: Ipiñi deza-gun argi, asi baiño len, «L»k eta «LL»k maiz artzen dutela bata bestearen lekua euskal-fonetikan.

Bizkai'ko sarkaldean, Nerbion'en eskuinean, ba da GALARRAGA deritzan mendi bat. Laudio, Alonso'tegi, Sodupe'ren artean dago, eta bere azkeneko maldak Barakaldo'raino iristen

dira. Izatez, Ganekogorta'ren iparreruntzko besoa besterik ez da.

GALLARRAGA.- Beste izen ortako mendi bat, lengoa baiño apalagoa, Erandio'n daukagu. Bi mendi oien oiñak eze-tuaz, Nerbion ibaia dijoakigu itxasora. Bi mendi oien izenak -Gallarraga eta Galarraga- arrazoitzat arturik, larrukiak dagerki-guin «GALHARRAGA» ori, Nerbion dala esatera eusartuko nintzake ni, irakurle, zure baimenarekin.

HERCE.- Gaur Bureva'n dagoan ARCE da, seguruaski. «ER» «AR» aldaketa bein baiño geiagotan aurkitu izan dut aspaldiko idazki auetan: adibidez, EREDIA, («H»rik gabe, naiz gaur erderaz «H»kin idazten dan itza izan).

Burgos'ko Bureba ortan bada beste Arce bat: ARCEFON-CEA. Ez da erreza FONZEA ori zer dan igartzea, baiña euskal izenen zati da, iñolaz ere: Errioxa'n badira FONCEA eta FON-ZALECHE. Nork ipiñi lezake zalantzan «ETXE» ori euskalduna danik? Baduzu Bureba'n bertan MIRABETXE bat ere: Mirabe-Etxe? Barkatu: ez naiz etimologilari.

Badugu larrukian beste «H»kingo itz bat ere: ZAHARRA. Ez' dakit gaurko zer erriri dagokion; Naparroa'n dagoala bai; egoaldean; Lerin'dik ez urrutik. Ezta ere ez dakit erdiko «H» orrek zer adierazi nai digun: «G» bat agian, «ZUHAZU», GER-SALZAHA», «GARDELLEHI», «ARCAZAHA», ADURZA-HA» eta auen antzeko itzetan lez.

Orri-sail luzea daramagu-ta, emaiogun idatz-lan oni azkena. Ukitu gabe gelditzen zaizkigun izenak, datorren zenbakian aztertuko ditugu.

Baiña, larruki au idazki «xelebrea» dala esan dizut eta, agertu nai nizuķe bere zelebrekaria: Mauritarren aurkako borrokaldi latzean, zerutiko bi zaldun gudarien agerketa.

Abderraman'en bildurrez larri zebiltzan kristauak. II Erra-mir zan Leon'go errege («Principe Ranimiro qui tunc temporis illius Regni sceptrum tenebat»). Errege onek, Gaztela'ko Kon-teari eta Arabarrei laguntza eskatu ziela diosku Konteak berak,

eta ori idaztean, XII mendean, X'a ezkerro Eusko Laterriak Laterri iareak zirala, adierazten digu larruki au idatzi zuan lumalariak; ez zirala iñoren mendeko. Oartzeke adierazten digu ori, larrukian bertan Araba, Bizkai, eta Gipuzkoa'ko Jaun egiten bait du gaztela'ko Kontea. Oartzeke, bai, baiña argi-argi adierazten digu ori.

Onatx Perdinanda Gontzalena Kontearen itzak: «Quo cognito Principe Ranimiro... auxilium nostrum, et Alavensium virorum adversum Gentiles hostes im praelium convocavit»: «Ori (mauritarren erazoa) jakinda, Erramir Printzipeak, gure (Kontegaztelarrarena) eta Arabar gizasemeen laguntza eskatu zuan areio jentillen aurka borrokan ekiteko».

Gaztela'ko gizonak borrokara eramateko, naikoa zuan Erramir II'ak Gaztela'ko Konteari laguntza eskatzea. Aren mendeko bait ziren aiek. Baiña Araba'ko gizonak eramateko ez zuan naikoa Gaztela'ko Konteari laguntza eskatzea. Araba'ko gizasemeei berairi eskatu bear zien laguntza ori. Iñoren mendeko ez ziralaren ziñale portitza!

Baiña beste gauza bat ere egin zuan Leon'go Erregeak: Konpostela'ko Donejakoba'ri eskeintza oparoa. Ba... Kukulla'ko Donemilla Konpostela'ko Donejakoba aiñakoa egiteko, Donemillian'eri doai oparaoagoa ematen ipintzen digu Pernanda Gontzalena, Gaztela'ko Kontea. «Eoden modo, cum tam dignum devotum dibulgata relatio nostris auribus innotesceret, visum fuit nobis, et universi nostrorum militum, et rusticorum fore coenobium S. Aemiliani simili oblatione venerari debere»

«Era berean, alako eskeintza bikaiñaren, arrats zabaldutako susmurrua gure belarrietara iritsi zanean, bai neri eta bai nere gudari guztiei eta jende landerrari ere, doai berdiñ bat egiñaz, Donemillian'en Lekaidetxe omendu-bearra genduala iduritu zatzaigun». Eta bereala, larrukiaren idazleak, Konteak Kukulla'ri emandako errien zerrenda amaigabea eskeintzen digu).

Iritxi zan ordea borrokaren eguna. «Igitur taliter facta Deo eta Sanctis eius devotione, ipsè prius Legionensis Princeps, cum

suis, hostes aggresus est in certatione, ante quorum conspectum coelestes duos equites candidis sedentes aequis divina dispositione armatis, visi sunt priores bellum commitentes. Quos fidelibus domini bellatoribus audacter sequentibus plurima de innumeris pars Angelico gladio, pluraque humano praelio corrui.

«Orra ba: doai oiek Jaunari eta bere santuei (Jakoba'ri eta Millian'eri) egin ondoren, Leon'go Printzipe bera, bere gudariek, sartu zan aurrena borrokara, eta begien aurrean zerutiko bi zaldun, zaldi zuri gainean agertu ziran, Jainkoaren aginduz, daren aurretik izkilluz borrokan sarturik. Aien atzetik ekin zuten Jainkoaren gudari zintzoek; etsai-kopuru zenbatu-eziñaren multzorik aundiena Aingeruen ezpatak erail zuan; besteak gizonen ekintzak garbitu zituan.

Argi dakusgu itz oietan gure lumalari ez-ezagunaren asmoa: Donemillian'en Kukulla Donejakobaren Konpostela'ren kideko egitea:

Gudan mairu-iltzen agertutako bi zaldun zerutiar aiek nor ziran ez digu esaten, baiña bat Donejakoba eta bestea Donemillian zirala guk uste izatea nai du.

Mairuen saillik aundiena «Angelico gladio» ots, «ezpata aingerukoiaz» erailla izan zala diosku, baiña bi «Aingeru» aiek, Donejakoba eta Donemillian zirala, besterik gabe danok pentsatuko genduala uste izan zuan arek.

Garrantzirik gabeko umekeriak? Ez! Orrelako siniskeritik sortua bait dugu espainarrek Donejakoba «mauri-iltzailleari» dioten eraspén zaratatsua: «Santiago y cierra España! Donejakoba lagun, jo itzek, España!

Baiña ontaz, datorren egunean mintzatuko gera.

*Latiegi'tar Bixente*